

HAUSERA HAUSA, HAUSA, HAUSA

Language family: Afro-Asiatic, Chadic, West, A, A.1.

Language codes:

ISO 639-1 ha

ISO 639-2 hau

ISO 639-3 hau

Linguasphere: 19-HAA-b.

Beste izen batzuk (autoglotonimoa: Harshen Hausa هَوْسَ هَرْشَن, حَوْسَ):

abakwariga alt hausa [HUA].

habe alt hausa [HUA].

haoussa alt hausa [HUA].

hausa [HUA] hiz. Nigeria; baita AEE, Alemania, Benin, Burkina Faso, Eritrea, Ghana, Kamerun, Kongo, Niger, Sudan, Togo eta, Txad ere.

hausawa alt hausa [HUA].

hawsa alt hausa [HUA].

kado alt hausa [HUA].

mgbakpa alt hausa [HUA].

BENIN

hausa [HUA] Atakora eta Borgou probintziak. Afro-Asiatic, Chadic, West, A, A.1. Merkatal hizkuntza. Ikus sarrera nagusia Nigerian.

BURKINA FASO

hausa (aoussa) [HUA] 500 hiztun (1991, Vanderaa). Boulgou eta Gourma probintziak. Afro-Asiatic, Chadic, West, A, A.1. Ikus sarrera nagusia Nigerian.

GHANA

hausa [HUA] Afro-Asiatic, Chadic, West, A, A.1. Merkatal hizkuntza. Ikus sarrera nagusia Nigerian.

KAMERUN

hausa (haoussa, hawsa) [HUA] 23.500 hiztun (1982, SIL).
Sakabanatuak. Afro-Asiatic, Chadic, West, A, A.1. Hiztegia,
gramatika. Ikus sarrera nagusia Nigerian.

NIGERIA

hausa (hausawa, haoussa, abakwariga, mgbkpa, habe, kado) [HUA]
18.525.000 hiztun (1991, SIL). Herrialde guztietako populazioa
24.200.000 lehen hizkuntza dutenak, 39.000.000 bigarren
hizkuntzatzat daukatenak barne (1999, WA). Lehenengo
hizkuntza dutenak Sokoto, Kaduna, Katsina, Kano, Bauchi,
Jigawa, Zamfara, Kebbi eta Gombe estatuetako eskualde
zabaletan. Bigarren hizkuntzakoak Nigeriako iparraldean. Halaber
mintzatua AEE, Alemania, Benin, Burkina Faso, Eritrea, Ghana,
Kamerun, Kongo, Niger, Sudan, Togo eta Txaden ere. Afro-
Asiatic, Chadic, West, A, A.1. Dialektoak: kano, katagum,
hadejiya, sokoto, gobirawa, adarawa, kebbawa, zamfarawa,
katsina, arewa. Barikantxiera militarrek kasernetan erabiltzen
duten pidgina. Badago pidgin bat edo hausera markatua. Ekialde
Hausako azpidialektoak: kano, katagum, hadejiya; Mendebalde
Hausan: sokoto, katsina, gobirawa, adarawa, zamfarawa. Ipar
Hausan: arewa, arawa. Abakwariga azpitalde bat da. Iparraldean
hizkuntza erregional ofiziala. Hizkuntza ofiziala, hiztegia,
gramatika, SVO. Latindar idazkera eta ajamia. Irrati emanaldiak.

NIGER

hausa (haussa, haoussa, hausawa) [HUA] 5.000.000 hiztun lehen
hizkuntza dutenak (1998). Ama hizkuntza dutenak Nigerren
erdialdetik Nigeriaren mugaraino. Hirietan mintzatua Niger osoan
zehar. Afro-Asiatic, Chadic, West, A, A.1. Dialektoak:dawra,
katsina, damagaram, gobirawa, aderawa, arewa, kurfey, gaya.
Populazioaren % 55entzat ama hizkuntza da, % 25entzat bigarren
hizkuntza. Nigerren merkatal hizkuntza nagusia. Hizkuntza
nazionala. Hiztegia, irrati emanaldiak, TB. Ikus sarrera nagusia
Nigerian.

SUDAN

hausa [HUA] 418.000 hiztun (1993, Johnstone). Ipar Sudan. Afro-Asiatic, Chadic, West, A, A.1. Sudanen seguruenez hiztun asko fulani etniakoak dira, jada fulfulderaz mintzatzen ez dutenak. Merkatal hizkuntza. Ikus sarrera nagusia Nigerian.

TOGO

hausa (haussa, haoussa) [HUA] 9.600 hiztun (1991, L. Vanderaa AEE). Afro-Asiatic, Chadic, West, A, A.1. Elebitasuna frantsesez. Oso zabaldua bigarren hizkuntza bezala. Merkatal hizkuntza. Ikus sarrera nagusia Nigerian.

Hizkuntza / lengua: hausera / hausa / hausa / hausa.

Hiztunak / hablantes (2002): 30.000.000 ama hizkuntza dutenak + 75.590.000 hizkuntza behikulartzat dutenak (Rafael del Moral).

Herrialdea / país: Nigeria, Benin, Burkina Faso, Eritrea, Ghana, Kamerun, Kongo, Niger, Sudan, Togo, Txad.

<p>HISTORIA. Familia txadikoko afroasiar hizkuntza, Afrika Beltzean mintzatuena. Hiztunek <i>háusáawáa</i> deitzen diote beren buruari. Haien zentro kulturala iparraldeko Kano hiria da, duela mila bat urte sortua.</p> <p>Hausa izena lehen aldiz XIII. m.ko arabiar testu batean agertzen da tribu bat aipatzeko. Hausar herria jada antolatua zegoen Erdi Aroan, Gaurko Nigeriaren iparraldean. Ordurako muga haiek gaindituak zituen Saharako basamortua iparralderantz gurutzatu eta Mediterranioko hirietan kokatzen ziren merkatarien ahotan eta ekialdeko bideak ere areagotzeko modua zituen.</p>	<p>HISTORIA. Lengua afroasiática de la familia chádica, la más hablada del África Negra. Sus hablantes se llaman a sí mismos <i>háusáawáa</i>. Su centro cultural es Kano, ciudad del norte de Nigeria fundada hace unos mil años.</p> <p>El término <i>hausa</i> aparece por primera vez en un texto árabe del s XIII como el nombre de una tribu. El pueblo hausa estaba ya organizado en la Edad Media, en el actual territorio del norte de Nigeria. Por entonces la lengua desbordaba aquellos límites en boca de mercaderes que cruzaban el desierto del Sahara hacia el norte y se establecían en las ciudades del Mediterráneo, y también se extendía por las rutas del este.</p>
---	--

XIX. m.aren hastapenetan Sokotoko erreinuaren hedapen politikoak hainbat behar erlijioso eta literario sortu zituen eta hizkuntza idatziaren erabilpena ekarri zuen. Ondorioz poesia garatu zen arabiar edo ajami alfabetoz idatzia. Nigeriaren kolonizazio britainiarrak irautzen bitartean, hauserak ingelesarekin batera estatus ofiziala lortu zuen. Independentziaren ondoren hizkuntza nazional deklaratzeko nahi izan zen baina iboeradun eta yoruberadunek aurka egin zuten eta halaber beste gutxiengo batzuek ere. Gaur merkatarien hizkuntza behikularra da ikasteko inguruko beste hizkuntza batzuekiko erraztasun handiagoa duelako. Egunkari batzuk publikatzen dira eta erruz erabiltzen da komunikabideetan. Nazioarteko irrati emisora batzuek hausera erabiltzen dute beren emanaldietan.

HIZKUNTZA. Ezaugarri nagusiak.

Fonetika. A) Sei kontsonante glotal ditu, inplosiboak eta ejektiboak. **B)** Bost bokal ditu eta luzeak nahiz laburrak izan daitezke: *a, e, i, o, u*. **C)** Hizkuntza tonala da; bokal bakoitza baxua (*à, è, ì, ò, ù*), garaia edo beheranzkoa (*â, ê, î, ô, û*) izan daiteke. Tonu garaiak ez du diakritikorik. **D)** Hiru silaba mota ditu: CV, CVV

La expansión política del reino Sokoto a principios del s. XIX creó una serie de necesidades religiosas y literarias que favoreció su uso como lengua escrita. Como consecuencia se desarrolla la poesía, escrita con alfabeto árabe, el ajamí. Durante la colonización británica de Nigeria, el hausa alcanza la consideración de lengua oficial junto al inglés. Tras la independencia de Nigeria se intenta imponer como lengua nacional pero se encuentra con la oposición de los hablantes de ibo y de yoruba, por no mencionar otras lenguas minoritarias. Hoy es una lengua vehicular usada por los comerciantes que se beneficia por su relativa facilidad de aprendizaje con respecto a otras lenguas vecinas. Se publican algunos periódicos y tiene un amplio uso en los medios de comunicación. Algunas emisoras de radio internacionales utilizan el hausa en sus emisiones.

LENGUA. Principales características.

Fonética. A) Posee 6 consonantes glotales, inplosivas e inyectivas. **B)** Posee 5 vocales que pueden ser largas y breves: *a, e, i, o, u*. **C)** Es lengua tonal; cada vocal puede ser pronunciada con tono bajo (*à, è, ì, ò, ù*), alto o descendente (*â, ê, î, ô, û*). El tono alto no lleva diacrítico. **D)** Concibe 3 tipos de sílabas: CV, CVV y CVC. Por tanto, todas las

eta CVC. Beraz, silaba guztiak eta ondorioz hitz guztiak ere kontsonantez hasten dira.

Morfosintaxia. **A)** Izenek 2 genero dauzkate (maskulinoa eta femeninoa, hau singularrean bakarrik identifikatua). **B)** Pluralen formazioa oso irregularra da. **C)** Izenordainek generoa singularreko bigarren eta hirugarren pertsonetan agertzen da. **D)** Ez dago bereizketarik adjektibo eta forma nominalen artean. **E)** Adjektiboa izenaren aurrean doa eta honekin genero-numeroetan komunztatzen du. **F)** Aditz guztiak bokalez amaitzen dira eta aldagaitzak dira denborari, aspektuari, pertsonari eta numeroari buruz. **G)** Perpausaren ohiko ordena Subjektua + Izenordaina + Objektu Zuzena eta Zeharkako Osagarria da. **H)** Arabiera da mailegu gehien eman diona, ingelesa gero eta esan hizkuntza bantuek asko eragin diotela. **I)** Azalera geografiko handia duen arren, zatiketa dialektala txikia da, baina bi aldaera garrantzizkoak, sokotoera eta kanoerak zatitzen dute herrialdea. Literatura kanoeraz inspiratzen da. **J)** Hona hemen hauseraz lehenengo 10 zenbakiak: *dāya* (1), *biyu* (2), *uku* (3), *udū* (4), *biyar* (5), *shida* (6), *bakwai* (7), *takwas* (8), *tara* (9), *goma* (10).

Idazkera. Latindar eta arabiar alfabetoak.

sílabas de la lengua y por ende todas las palabras empiezan por consonante.

Morfosintaxis. **A)** Los nombres tienen 2 géneros (masculino y femenino que solo se identifica en singular). **B)** La formación de plurales es muy irregular. **C)** Los pronombres indican el género en la segunda y tercera personas del singular. **D)** No hay distinción entre adjetivos y otras formas nominales. **E)** El adjetivo precede al nombre y concuerda con él en género y número. **F)** Todos los verbos terminan en vocal y son invariables en lo que se refiere al tiempo, al aspecto, a la persona y al número. **G)** El orden habitual de la oración es Sujeto + Pronombre + Complemento Directo + Complemento indirecto. **H)** El árabe es la lengua que más préstamos ha realizado, después el inglés y señalar también la influencia de las lenguas bantúes. **I)** A pesar de su gran extensión geográfica, su fragmentación dialectal es escasa, pero dos variedades importantes, el sokoto y el kano, la dividen. La literatura se inspira en el kano. **J)** Los 10 primeros números en hausa son: *dāya* (1), *biyu* (2), *uku* (3), *udū* (4), *biyar* (5), *shida* (6), *bakwai* (7), *takwas* (8), *tara* (9), *goma* (10).

Escritura. Alfabetos latino y árabe.

GRAMATIKAK, METODOAK, ESKULIBURUAK

HIZTEGIAK LEXIKOAK

HAUSA-ENGLISH / ENGLISH-HAUSA, Hippocrene Practical Dictionary, Nicholas Awde, 17,5x11, 454 or., New York, **1996**.

HAUSAR ALFABETOA HAUSA ALPHABET

Fonema kontsonanteak / Consonant phonemes

	Bilabial		Alveolar	Post- alveolar	Velar pala.	plain labi.	Glottal plain pala.
Nasal	m	n					
Stop							
voiceless		t	tʃ	c	k	k ^w	ʔ
/voiced	b	d	dʒ	ɟ	g	g ^w	
ejective		ts'	tʃ'	c'	k'	k ^w '	
implosive	ɓ	ɗ					
Fricative							
voiceless	ɸ	s	ʃ				h
/voiced		z					
Approximant		l		j		w	
Flap			ɾ				
Trill		r					

Boko (latindar) alfabetoa / *Boko* (Latin) alphabet

<p>Hauseraren ortografia ofizial modernoa latinean oinarritutako alfabetoa da, <i>boko</i> deitua (ingeleseko 'book'-etik), zeina administrazio kolonial britainiarrek inposatu zuen 1930eko hamarkadan.</p>	<p>Hausa's modern official orthography is a Latin-based alphabet called <i>boko</i> (from english 'book'), which was imposed in the 1930s by the British colonial administration.</p>
--	---

A a B b B b C c D d D d E e F f G g H h I i J j K k K k L l

/a/	/b/	/b/	/tʃ/	/d/	/dʃ/	/e/	/ɸ/	/g/	/h/	/i/	/(d)ʒ/	/k/	/kʰ/	/l/
M	N	O	R r	S s	Sh sh	T t	Ts ts	U	W	Y	(Y	Z z	ʻ	
m	n	o			sh			u	w	y	y)		ʻ	
/m/	/n/	/o/	/r/, /r̄/	/s/	/ʃ/	/t/	/(t)sʻ/	/u/	/w/	/j/	/ʔi/	/z/	/ʔ/	

Ajami (arabiar) alfabetoa / Ajami (Arabic) alphabet

Latin IPA Arabic ajami

a	/a/	ا
a	/a:/	آ
b	/b/	ب
b	/b/	ب (same as b), ب (not used in Arabic)
c	/tʃ/	چ
d	/d/	د
d	/d/	د (same as d), ذ (also used for ts)
e	/e/	ه (not used in Arabic)
e	/e:/	ه (not used in Arabic)
f	/ɸ/	ف
g	/g/	غ
h	/h/	ه
i	/i/	ي
i	/i:/	ي
j	/(d)ʒ/	ج
k	/k/	ك
k	/kʰ/	ك (same as k), ق
l	/l/	ل
m	/m/	م
n	/n/	ن
o	/o/	و (same as u)
o	/o:/	و (same as u)
r	/r/, /r̄/	ر
s	/s/	س
sh	/ʃ/	ش
t	/t/	ت

ts	/t)s'/	ط (also used for d), ظ (not used in Arabic)
u	/u/	ُ (same as o)
u	/u:/	ُو (same as o)
w	/w/	و
y	/j/	ي
z	/z/	ز ذ
'	/ʔ/	

Arabiar alfabetoa hauserarentzat (ajami)
Arabic alphabet for Hausa (ajami)

ا	ب	ج	د	ه	و	ز	ح	ط	ي	ك	ل	م	ن	ص	ع	ف
-	b	j	d	h	w	z	h	ts	y	k	l	m	n	s	'	f
ض	ف	ر	س	ت	ث	خ	ذ	ظ	غ	ش	-	-	-	ي	-	-
r	k	s	t	c	(kh)	z	z	g	sh	a	i	e	ē	u/o	-	-

Latindar alfabetoa hauserarentzat (boko)
Latin alphabet for Hausa (boko)

A a	B b	B̄ b̄	C c	D d	D̄ d̄	E e	F f	G g	Gw gw	H h
[æ/a]	[b]	[b̄]	[tʃ]	[d]	[d̄]	[e]	[f]	[g]	[gʷ]	[h]
I i	J j	K k	Kw kw	K̄ k̄	K̄w k̄w	KY ky	L l	M m	N n	O o
[i/i]	[dʒ]	[k]	[kʷ]	[k̄]	[k̄ʷ]	[ki]	[l]	[m]	[n]	[o/o]
R r	S s	Sh sh	T t	Ts ts	U u	W w	Y y	Ȳ ȳ	Z z	'
[r, [r̄]	[s]	[ʃ]	[t]	[ts', s']	[u/u:]	[w]	[j]	[j̄]	[z]	[ʔ]

Testu-lagina ajamian /Sample text in ajami

رَايُوَابَبْنِ رَاوَبِنَا
 تَرَسَّشِنْ اِيكِي نَابَرِنَا
 غَنْ مَسَايِي دُوَرَشِدِينَا
 فِي دَاوِي شَطْبِيدَسْنَا
 شِبِ اَللَّهِ بَادَا كُنْغَرَا بَا

Rāyuwā bābban rābō nā, Gun masāfi don shi dainā,
 Tāfsāshin aiki na bāfnā, Fāi dà fōye shi tsai dà sunnā,
 Shi bi Allāh bā dà kàngarā ba.

Testu-lagina bokoan / Sample text in boko

Su dai yan-adam, ana haifuwarsu ne duka yantattu, kuma kowannensu na da mutunci da hakkoki daidai da na kowa. Suna da hankali da tunani, saboda haka duk abin da za su aikata wa juna, ya kamata su yi shi a cikin yan-uwanci.

Itzulpena / Translation

<p>Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu behar dute. <i>(Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 1. artikulua)</i></p>	<p>All human beings are born free and equal in dignity and rights. They are endowed with reason and conscience and should act towards one another in a spirit of brotherhood. <i>(Article 1 of the Universal Declaration of Human Rights)</i></p>
--	---